

hondo-hondotik

Mikel Aizpuru

(UEUko zuzendari ohia)

UEUk hogeita hamar urte, indarrak eta ajeak

Udako Euskal Unibertsitatea 1973an sortu zen, garai hartako bi kezkar erantzuteko asmoarekin: euskararen susperraldi berriari laguntzea, eta izen hori merezi zuen unibertsitate publiko baten faltari erantzutea. Ipar eta hegoaldeko zenbait lagunek UEU antolatze-ari ekin zioten. Lehen ikastaroa Donibane Lohizunen burutu zen. Goizetan hitzaldi orokorrak eskaini ziren; arratsaldeetan, berriz, talde eta mintegietan elkartu ziren bertara bildutakoak. Mintegi horiek, bereziki zientzia alorrekoak, oso garrantzitsuak izan ziren UEUri jarraipena emateko eta irakaskuntza unibertsitarioan euskarari atea irekitzeko. 1973tik aurrera, hutsik egin gabe burutu dira gure ikastaroak. Urteroko jarduera ez zen mugatu arlo akademikora; UEUk Euskal Unibertsitatearen defentsa sutua egin zuen. Bere ustez, sortzeaz zegoen Euskal Unibertsitateak Euskal Herri osoa bildu behar zuen, gizarte berdintasunean oinarritu eta euskara erabili bere lanetarako.

UEUren ikastaroek zenbait ezaugarri dituzte: sail edo jakintza-arlo baten inguruan, antolatutako ikastaro autonomoak, *Euskal* gaiez gain, zientziak zientzia gisa lantzeko ahalegina, espezialitate bakoitzeko euskarazko hiztegi teknikoaren prestaketa, euskara batuaren aldeko apustu irmoa eta liburugintza bultzatu beharra. Hori guztia, diziplinen arteko mugak itxi gabe; eta ikasketa akademikoez gain, beste arlo batzuei atea zabalduta, hala nola antzerkiari, musikari edo bertsolaritzari. Beti, irakaskuntza mundutik kanpoko jendea ere erakartzeko asmotan, eta ikastaro egunetan giro berezia sortzen saiatuta. Nahi horiek, noski, denboraren joan-etorrian eta UEUko kideen ahalmenen arabera, gehiago edo gutxiago bete dira, baina hori dira UEUren ikur moduan.

Horietaz gain, lau elementuk definitu dute gure zeregina: autonomia, osagarritasuna, irekitasuna eta kalitatearen bilaketa. Autonomia, UEUk bere bideari ekin zionean, gizartearen diren gainerako egitura, talde eta erakundeekiko erabateko independentzia mantenduz egitea erabaki zuelako. Osagarritasuna, unibertsitate berriaren euskaraz inoiz eduki ez duen lekua aurkitu duelako. Irekitasuna, euskalduna izatea delako gure irakasle eta ikasleei eskatu zaien baldintza bakarra. Kalitatearen bilaketa, azkenik, hasiera-hasieratik saiatu



Udako Euskal Unibertsitatearen biltzar bat.

garelako gure klaseetan irakaskuntzak maila ona izaten; eta liburuetan argitaratutako edukiak goi-mailakoak izateaz gain, hizkuntza txukunean zabaltzen. Horietaz gain, Euskal Unibertsitatearen beharra aldarrikatzen jarraitu dugu. Hain zuzen, 1995eko apirilean burututako Kongresuan, UEUren helburua Euskal Unibertsitatea sortzen laguntzea zela erabaki genuen.

Bilakaera honen abiada eta eragozpenak gorabehera, antzeko lana egin izan du UEUk denbora luzez. Azkeneko urte hauetan, ordea, aldaketa nabarmenak gauzatu dira gure erakundean, baita euskal gizartearen ere. Guri dagokigunez, nire ustez hiru dira berrikuntzak: lehena, erakunde publiko gehien jarrera-aldaketa, orain UEUren lana onartu eta babestu egiten baitute; udaren muga gainditzea eta urte osora zabaltzea gure jarduera da bigarrena; eta udako ikastaroen *barnetegi eredua* ahitzea hirugarrena. Azken bi elementu horien eragina oso era laburrean azal daiteke. UEU bere lehenengo Ua (Udako) galtzen ari da, bigarren Uaren (Unibertsitatea) mesedetan. Egoera berri hau arazo ugari sortzen ari zaio neurri handian lan militantean, musu-trukeko ahalegin eta lankidetzan oinarritzen den erakundeari. Lan-

erritmoa bizkortzeak eta urte osora zabaltzeak zaildu egiten dute amauterismoa eta atea ireki dizkiote profesionalizazioaren bide edo aukerari.

Unibertsitatearen izan diren aldaketen artean bi azpimarratuko ditut: hirurogeita hamarrek hamarkadan sortutako egitura unibertsitarioa sendotzea dugu lehena. Faktore horren garrantzia ulertzeko, zera gogoratu behar da, UEU sortu zenean Euskal Herriko unibertsitate-egitura, bereziki publikoa, oso ahula zela. Gaur, aldiz, inork ezin du ukatu unibertsitateak, publikoak zein pribatuak, irmoki txertatuta daudela gure artean eta, epe motzera, ez dela aldaketa handirik egongo haiek dituzten ezaguerien inguruan. Bigarren aldaketa euskarak unibertsitatearen hartu duen tokia da. 1975ean hizkuntza arrotza genuen campusetan; gaur egun, bereziki EAEko unibertsitateetan, presentzia nabarmena dauka, nahiz eta ia beti bigarren mailan aurkitu gaztelaniaren aldean. Gertaera horrek, borroka eta lan askoren ondorio, bi fenomeno berri ekarri ditu berarekin. Bat, bere hezkuntza-prozesu osoa euskaraz landu duen belaunaldiaren agerpena. Talde horrek, neurri handian, gainera, prozesu hori normaltasun osoz bizi du. Bigarren fenomeno, gure harirako garrantzitsua-

goa, unibertsitateko irakasleen talde mar-dularen sorrera dugu. Mila eta 200dik gora garelako unibertsitateetan euskaraz lan egiten dugunon multzoa.

Badugu, beraz, Euskal Unibertsitatearen definizio bat, Euskal Herri osoa hartuko duena eta nagusiki euskaraz funtzionatuko duena, gauzatzeko aukerarik ez duena, epe motzean gutxienez; eta badugu, bestetik, egungo errealtatea, hots, jende asko ari dela euskaraz lan egiten unibertsitate elebidun edota erdaldunetan. Euskal eskizofreniaren beste adibidetzat har dezakegu lehen definizioaren defendatzaile sutsuenak bigarren multzoko partaide ere badirela edota izan nahi dutela. Are gehiago, badirudi, zenbaiten adierazpenen arabera, behinik behin, garrantzitsuagoa dela Euskal Unibertsitatea aldarrikatzea eguneroko lana euskaraz egitea baino. Banaketa horrek makina bat eztabaida, zatiketa eta urruntze sortu izan ditu azken hogeitreetan euskaltzaleen artean. Adierazgarria da, bide berean, euskaraz lan egiten duten gune askoren artean dagoen inkomunikazioa.

Impasse honetatik ateratzeko proposamen berri eta berritzaileak agertzen hasi dira. EIREK iaz egindako kongresuan, adibidez, Euskal Unibertsitatea «euskarazko unibertsitate modura ulertzen da, zentzu zabalean, euskaraz egindako unibertsitate irakaskuntza, ikerkuntza, kudeaketa eta egitura oro barne hartuz». UEUk abenduaren 14an egingo duen Kongresuan eztabaidatuko den txosten nagusiak, bere aldetik, Euskal Unibertsitate-Sistema planteatzen du, EIREren bidetik, Euskal Unibertsitatea unibertsitate konplexu gisa definituz. Badakit, jaso ditugun zuzenketen arabera, definizio berria ez dela UEUko kide guztien gustukoa, baina, nire uste apalean, urrats garrantzitsua izan daiteke, erakundeetan euskara eta unibertsitatearen inguruko sinergiak sortu eta biltzeko.

Bi elementu azpimarratu nahi ditut artikulu hau bukatzeko. Lehenik eta behin, eztabaidak UEU indartzeko balio behar duela, eta ez ahultzeko. Edozein modutan, bigarren kontua, definizioak definizio UEUk errealtate berrira egokitu behar du. Lan horretan arrakasta baldin badugu, gure ametsa, hots, euskaraz bizi, lan eta ikasiko duen gizarte hurbilago izango dugu. Hori da gure benetako erronka.

esaldiak

«Eskalada ere matxista da, oro har mundua bera bezala. Gizartearen beraren isla da kirola, azken batean»

JOSUNE BEREZIARTU

(Eskalatzailea)

«Miguel Sanzen gobernuak Nafarroan euskararen aurka gehiago ez badu egin, ezin izan duelako izan da»

JUAN JOSE LIZARBE

(PSNko idazkari nagusia)

«Literaturatik bizi ez bada ere, hortik biziko balitz bezala ekin behar dio idazleak idazteari»

ANJEL LERTXUNDI

(Idazlea)

«Sharonen eta Arafaten politika ez da egokia. Batak eta besteak dimisioa aurkeztu beharko luketela uste dut»

NOA

(Abeslaria)